

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OKONDOKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea uraren, zaborraren eta estolderiaren 2020ko lehen hiruhilekoko erroldak**

Ur hornidura, estolderia eta zabor bilketako zerbitzuak jasotzeagatik 2020ko lehen hiruhilekoko tasak ordaindu behar dituztenen Okondoko udalerriko erroldak egin eta alkatearen dekretu bidez onetsi ziren.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek errolda aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izateko. Interesdunek espedientea udal bulegoetan (Zudubiarte kalea, 1) aztertu ahal izango dute, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onartzen dituen egintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea hilabetekoa izango da, 2020ko ekainaren 29tik uztailearen 29ra arte.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazteko aldia hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Banku erakundeetan helbideratutako ordainketetarako zergapekoek ez dute inolako jestiorik egin beharko, bankuak egingo baitu zordunketa 2020ko uztailearen 20an.

Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Nafarroako Rural Kutxan sar dezaten.

Okondo, 2020ko maiatzaren 25a

*Alkatea*

*JUAN JOSE ESCUZA DEL CAMPO*